

«Isiltasunak denbora gehiago behar du gure bizitzan»

Garaian garaikoa. Gaur egungo musika egiten du. Nola Beethovenek bere aldiari zegokiona egin zuen, halaxe ari da Zuriñe Gerenabarrena, “gaur egungo” musika egiten. Ez du bestelako epitetorik nahi. Badu gogoia, badu teknika, badu denbora, badu... Dena du. Pentsatzen jarri, ideia landu eta bidaian hasi ohi da, musika sortzen, helmuga zer etorriko den zain...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Musikaz hitz egin behar dugu, zuk egiten duzunaz. Nolakoa da?

Gaur egungoa. Garai honetakoa.

“Musika berria” esan izan dena?

Garai batean “berria”. Baina kontuz: Beethoven ere berria zen, azken aldiaren egiten zituen kuartetoak iraultza ziren. Abangoardia zen, bere garaiko sortzailea izanagatik. Ez zen ari errege-erreginentzat, burgesentzat baizik.

Iraultza burgesa, alegia.

Horixe. Garaia arabera, artista ere aldatu egiten da. Langilea aldatzen den modu berean, edo artisaua. Aldatu, edo desagertu, alegia. Esan nahi dut, sailkatze horiek, “musika berria”, “musika klasikoa”... ez direla egokiak. Artean ez dago pentsatzerik arlo batean ari bazara bestean aritzerik ez duzunik. Arlo bat ulertzen ez baduzu beste bat sentitzerik ez duzunik. Sentitu, denok sentitzen dugu. Bestalde, musika entzutea baino errazagorik ez dago: nahikoa duzu diskoa jarri, edo kontzertura joan. Bai, garrantzizkoa da jakitea, baina are garrantzizkoagoa da musikara “joatea”. Entzutea, alegia.

Beraz, zure musikaz ari eta “gaur egungo musika” esan behar dut?

Bai. Horixe besterik ez.

Ez “musika elektronikoa”.

Nik, batzuetan, material elektronikoa baliatzen dut nire lanetan. Musika elektronikoa liteke, orduan. Baina kuarteto batentzako musika egiten dudanean, adibidez, ez naiz estilo elektronikoa egiten ari. Hala ere, baliteke nire pentsa-

mendua elektronikoa izatea, hainbat eta hainbat musika elektronikoa egin eta gero, baldinbaitere! Asko gustatzen zait estilo hori. Gainera, baditut zenbait musikagile niregandik oso hur sentitzen ditudanak eta horrek guztiak, batzuetan, musika elektronikoa egiten ariko banintz bezala jokatzera narاما, nahiz eta batak bestearekin ez duen batere ikustekorik.

Horrek ikustekorik ez. Aldiz, Karmelo Bernaolak eta Alfontso Garcia de la Torrek ikusteko handia dute zure musikagintzan.

Bai horixe! Hainbat! Karmelorekin dena dut ikustekoa. Hura Gasteizko kontserbatoriora zuzendari iritsi zenean... Kontserbatorioa esan dut, baina etorri orduko aldatu zion izena: Musika eskola. Berak zioenez, kontserbatorioan ez da ezer kontserbatzen, gordetzen. “Egin behar da”, esaten zuen. “Laborategia behar dugu!”. Baita egin ere. Haren eskolak musika laborategia ziren, sorkuntza lekuak. “Kontserbatorio” izena kendu eta “eskola” izena jarri zion. Faraoiaren kontra egin zuen. Gero eta gehiago, gero eta gorago... Ez. Karmelo Bernaolak bestela egin zuen.

Nortasun agiria

Zuriñe Fernandez Gerenabarrena (Gasteiz, 1965). Akordeoia ikasi zuen Bartzelonan eta Donostian. Kontrapuntu eta Fuga, Juan Cordeiro irakaslearekin Bilbon, eta Konposizioa Karmelo Bernaolarekin Gasteizko Jesus Guridi musika eskolan. Alemanian eta Italian ere ikasia da. Musika irakasle eta egile da Gasteizko eskolan. Gaur egungo musika egiten du eta hainbat lekutan jo izan dituzte beraren lanak. Musika emanaldietan ez ezik, zinema, dantza eta bideo saioetan ere entzun ahal izan dugu Zuriñe Gerenabarreraren lanik. Gaur egungo musikak Euskal Herrian duen izen handietakoa da.

A portrait of Zuriñe Gerenabarrena, a woman with curly brown hair, wearing a dark blue blazer over a red and black striped top. She is standing in front of a large, abstract sculpture made of rusted metal. The background is slightly blurred.

Zuriñe Gerenabarrena

2007ko urriaren 21a

ARGIA

13



Zer ikasi zenuen harengandik?

Ez nekien guztia. Halako egile bat ikasi behar zela eta: “Ez dago pianoko zortzigarren urtera iritsi beharrik horretarako. Mikrokosmosak egin behar dira. Hasieratik egin behar diozu aurre bitonalitate bati, lauogei urteko distantzia hurbilera dagoen pertsona bati”. Edota: “Ez dago lehenengo Mozart, gero Beethoven eta hurrena halako egilea aztertu beharrik. Ez. Alderantziz behar da: hasieratik amaierara, duela hogei urte hasi eta orain dela 200 urtera”. Horrek sailkapen estu horiek galarazteko balio du. Bada, horrelaxe jokatzen zuen Karmelo Bernaolak, maila guztietan.

“Maila guztietan”.

Bai. Eta gauza guztien gainetik musika maite zuen. Egile, sortzaile... Musika barru-barrutik bizi zuen pertsona. “Konpositoreak eguneko 24 orduetan izan behar du konpositore, ez

eskola orduetan bakarrik. Eskolatik kanpo ere konpositore da!”. Eta pinturaz, antzerkiaz, zinemaz eta politikaz ere hitz egiten genuen Karmelorekin.

Politikaz?

Euskal Herriaz zituen kexak, esango zituenak, Oteizak esaten zuena, nola funtzionatzen zuten gauzek, nola aldatu behar zuten hezkuntza sistemak... Nazionalismoari buruz, askorik ez. Nik hamazazpi bat urte izango nituen, Harmoniako laugarren urtea egiten.

Karmeloren karakterra nolakoa zen?

Oso gogorra. Bai gurekin eta bai bere buruarekin. Jakina, gu prestatzen ari zen, mundura irten gintezan. “Hau, biharko. Bi egunean egin behar duzu sonata. Beste bi egunean, orkestratu”. Horrek teknika erabiltzeko berealdiko erraztasuna ematen dizu.

gure!
arteak
euskaraz



BFA
DFB
Batasun Foru
Alkandak
Diputadon
Foral de Ibilola

Alfontso Garcia de la Torre

“Behin, joan nintzaion eta: ‘Alfontso, obra egin nahi dut’. ‘Ea, kont!’.
‘Bada, helikopteroan doan morroia dugu, hiriaren gainean, grabatzen. Aldi berean, partida jokatzen ari dira estadio batean, eta hura ere grabatu egiten da. Bestalde, oinezko bat ageri da, dena grabatzen ari dena. Hori guztia bildu, nahasteko mahaian nahasi, eta hirian barrena entzuten da bozgorailu bidez’. Alfontso, orduan, papera hartu eta: ‘Egin dezagun eskema!’. Eta hasi zen, nire asmoa teknologikoki lotzen. Alegia, ‘hori erokeria hutsa da!’ esan beharrean, guztiz alderantzizko jarrera du Alfontso. Irakaslearen eredu da: dena da posible. Sortzaileari ateak irekitzea da kontua”.

Bilbon ikasi zenuen Kontrapuntu eta Fuga.

Gasteizen ez zidatelako utzi. Arazoak izan genituen. Batek, pianoa jotzen zuelako. Besteak, hari ere aitzakia jarri ziotelako. Nik, akordeoia jotzen dudalako. Bernaolak: “Lasai, nik emango dizuet eskola. Zuek etorri. Noiz? Ni hemen izango naiz egunero eta, beraz, egunero etorriko zarete”. Horrela hasi ginen Konposizioan. Lehenengo urtean, lau ginen. Bigarreanean, gehiago. Ez zegoen mailaketarik ez bestelakorik.

Tailerra zen.

Jendea haren eskolara joaten zen, egiten ari zinen urtea egiten ari zinela ere. Orduan azaldu zen Alfontso.

Garcia de la Torre.

Bai. Alfontso, Juanjo Mena, Paco Ibañez, Antonio Lauzirika, Bingen Mendizabal, Sofia Martinez, Julio Alfontso beraren anaia, tron-

boia jotzen zuena... Alfontso oso konpositore ona da, eta pertsona bikaina. Berak gauzatu zuen laborategi elektroakustikoa. Kontserbatorioa egin zenean, gela horixe egin zuen lehenengo Karmelok: elektronika laborategi bat, non sintetizadore bat zegoen, eta ordenagailu bat; Espainian hiru baino ez ziren izango ordenagailu haren modukoak. Konposizioko bigarren urtean, Karmelok: “Konpositorerik ez da izan behar elektronika jakin gabekorik. Denok jakin behar duzue”. Alfontso laborategi haren ardura zaila hartu zuen bere gain, baina eutsi zion. Alfontso eskolak eman ditu, musika elektronikoa bultzatu du, konpositoreei lagundu... Karmeloren mentalitate berekoa da horretan. Nik uste nola edo hala Karmelo Bernaolaren mentalitatea dugula haren ikasle izan ginen guztiok.

Zuk ere bai?



E I B A R

Urriak 19tik 28ra arte, Unzaga Plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!



Karmelo Bernaola

“Oteizari omenaldia egin zioten urtean, artista plastikoek egingo zituzten lanen albistea zabaldu zen. Eta Bernaolak guri, orduan: ‘Gu ere artista gara. Zertan gaude hemen? Ea, zu, akordeoi jole hori, zer egingo duzu, zer egin nahi duzu? Zuk espazioari buruz egingo duzu! Eta gonbidatu egingo dugu Oteiza, eta kontzertua eskainiko diogu!’. Eta gu, Konposizioko bigarren urtean, Oteizaren omenaldirako lana prestatzen! Horrela egin nuen *Arnasa* obra, *Quosque Tandem...!*-etik abiatutik. “Oteizaren liburuak irakurri beharko dituzue haren omenaldizko musika egiteko. Irakurri al dituzue?”, eta guk: ‘Bai, bai’. Eta orduantxe, eskolatik irten eta Oteiza irakurtzera denok, suak hartuta bezala”.

Gainerako lanetan ez al da gozamenik?

Bai, baina bada beste alderdi bat ere, gogorra-goa. Batzuetan ez duzu nahi duzuna lortzen, eta hortxe komeriak. Sortu egin behar da, nota bat besteari lotu, ondo pasatu... Batzuetan minez sortzen da. Ez beti. Eta neure musika bestek interpretatuta entzuten dudanean ere, ez mina, baina bai urduritasuna, tentsioa. Nork bere argazkia ikusten duenean bezala.

Entzule askok lanak ditugu musika elektronikoaz jabetzeko.

Nik ezagutzen ditut musikaz ezer ez dakitenak, auditorioetako kontzertuetara joaten ez direnak, musika elektroniko horren aurrean beste edozein kontzertutara joango lirakeen jarrera berarekin joan eta hainbat iritzi miragarri ematen dituztenak. Zenbat buru hainbat aburu izaten da hor ere, jakina.

“Joan, entzun, sentitu”, esan izan duzu inoiz.

Joatea bera sentitzea da. Horretarako daukagu adimena. Oroitzapenak, erreferentziak...

Zuk esana hau ere: “Entzuten ari zarena gustatzen ez zaizunean, alde!”.

Libre zara horretarako. Ni ez naiz alde egiten duenetakoa. Beti zer edo zer hobea etorriko ote den esperantzan. Edo ondokoari galdezka: “Aizu, gustatzen al zaizu?”. Kontzertuetan, amaiera arte egoten naiz. Gustatu ez bazait, galdetu egiten dut, erantzun bila. Norberaren munduarekin txoke egiten duen hori zer ote den jakin nahi dut.

Zinemarako musika orkestratu duzu, dantzakoa, antzerkikoa, bideoak... Edera izan behar du norbait zure musikaren arabera dantzan ikustea, adibidez.

Bai. Trikitixa jo eta bestea dantzan ikustea bezala. Sinbiosia erabatekoa da. Are gogotsuago jotzen duzu, edo segitzen duzu sortzen. Aldiz, funtzionatzen ez duenean, zuzendu, hau eta beste aldatu, hemendik edo handik saiatu. Ikasi eta, beti, sortu.

Bai, baliteke nik ere Karmelo Bernaolaren ukitu bat izatea irakasten ari naizenean. Asko eskatzen diet, lan asko egin dezaten. Azken finean, Kontrapuntua eta Fuga teknika kontua da, eta teknika lantzeko ez dago beste modurik egitea baino, oker egin eta zuzentzea. Iruditzen zait harritu ere egiten direla ikasleak, asko eskaintzen diedalako. Garaiak ere aldatu egin dira, jakina, orain ikasgai asko baino gehiago dituzte... Gogoratzen naiz, Karmelo, zurekin hizketan eta esaten zizun: “Ea, erakutsi zure miseriak!”. Guk egingako lanen gainean ari zen, noski. Beste alde batetik berriz, munduan izan zitekeen musikagilerik onena bazina bezala hartzen zintuen. “Hemen da!”.

Badira urteak, dozena erdi edo: Gasteizen Herrikoia liburu denda itxi zeneko agurrean, batzuek testuak irakurtzen, besteak musikarekin... Trikitixa joz azaldu zinen, koadrilan.

Bai, baina utzi diot trikitixari. Ez daukat astirik.

Gaur egungo musika. Elektronika laborategia. Kontrapuntu eta Fuga. Trikitixa...

Dena lotuta dago. Akordeoia jotzen dut, gutxi eta gaizki, eta pianoa ere bai. Eta trikitixa. Beste zenbait lagunekin batera jotzea, kalean, gozatzan, festa batean... Munduan denik eta *performancerik* ederrena da. Eta gozatu.

Zer duzu sortze hori?

Sortzea, ezer ez dagoen lekutik zer edo zer ekartzea da. Nire kasuan, isiltasuna zegoen tokian musika dago. Dena dela, nik esango nuke isiltasunak denbora gehiago behar duela gure bizitzan. Kutsadura akustikoa ikaragarria da. Ikus-entzunezkoa nahi baduzu. Jendeak galdu egin du entzuteko beharra, beti horretan ari da eta. Ezin isolaturik bizi da. Eta, entzuten hasteko, isiltasunetik abiatu behar duzu. Gainerakoan, zarata, zarata eta zarata besterik ez dago. Betekada ikaragarria da.

Nola abiatzen zara sortzen?

Gogoia behar duzu. Gogorik ez baduzu, gogoia edukitzeko modua egin. Bestalde, teknika behar duzu, eta denbora, eta ilusioa, honek ideiak ematen dizkizu eta. Eta ideia zure barruan duzunean, eta teknika, eta denbora... orduan ez duzu aulkian jarri besterik egin behar. Eta bidaiari ekin, egun zehatz bat arte. Bidaia horrek epe jakina izaten du eta. Eperik ezean, batetik bestera ibiltzen zara bidaiari, atertut gabe.

Alemanian, Italian... izan zara. Zer ikasi duzu atzerrian?

Zeure burua beste inguru batean ikusten. Asko da hori. Egoera berri asko dago, zeure burua etengabe surtan jartzen ari zara, frogan.

Zaletasuna

"Antzokietako musika entzutera joaten den jendea adin handikoa izaten da. Gazte askorik ez da ikusten. Aldiz, musika garaikideko beste zenbait emanalditan era guztietako jendea joaten da, askotarikoa da adinez eta fisonomiaz. Rock kontzertuetan gazteak ikusten ditut beti. Internet bidez, berriz, jendea musika jaisten ari da etengabe. Ez dakit zenbat entzungo duen horretatik. Entzuteak zaletasuna esan nahi du, zeure burua musika entzuten jartzea. Horretarako denbora behar da, jakina, gogoia, eta patxada".

AZKEN HITZA
Isiltasuna

"Baliteke egunen batean isiltasunaren aldeko aldarria egitea musikariak. Autobusean, musika. Aurrezki kutxan, musika. Tindategian, musika. Eta zein eratakoa? Garai klasikokoa? Erromantizismo garaikoa? Ez: komertziala, tirada handikoa".

Automatikoki eta batere pentsatu gabe egiten dituzun mugimenduen gaineko gogoeta egiten duzu, adi bizi zara. Eta funtsa beti leku guztietan bera bada ere, norbera ezberdina da, hauskorragoa delako, baina, era berean, ausartagoa. Hauskortasunak erabakiak hartzerantz bultzatzen zaitu, etxeko gelan jarrita hartuko ez zenituzkeen erabakiak, askotan. Hori oso osasungarria da pertsonarentzat, izan musikari, edo zapatarari.

Karmelo Bernaolak ere askotan hartzen zituen zapataria hizpide.

Bai, "musika egitea zapatak egitea da" esaten zuen. Zapatak egin behar genituen, artisau izan. ■

PETTI
On

TXUMA MURUGARREN
Marjinalia

UEK
Uhinak

SEXTY SEXERS
Unkamendi Blues

ROY LONEY & SENOR NO
Bottle of wine

SURFIN KAOS
Triphylon

JL PARDO & THE MOJO WORKERS
That's right!

STAY BLUES
Stay Blues

4 BROTHERS AND A GHOST
4 Brothers and a ghost

JOSETXO OOIA-ARIBE
Los Pendientes de La Reina

JJ BAND
Tangos de Lavapiés

MAMBA BEAT
Mamba beat

WWW.HOTSAK.COM

errabal
www.errabaljazz.com

gaztelupeko HOTSAK
Errabal 23
2008750 PALLUZE
Tel: +34 943 710076
Fax: +34 943 730709
gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com